

2020

DK memoria

Programazioa
ZINEMA eta IKUS-ENTZUNEZKOAK





2020n, ikus-entzunezkoen etxeko kontsumoak egundoko gorakada izan zuen, baina Donostia Kulturaren apustua aurrez aurreko topaketak dira, areto ilun batean, askotariko programazioak tarteko, proiektio hutsa baino harago iristeko, beren testuinguruarekin eta beren komisarioekin.

Osasun eta araudi egoerak eragina izan zuen, nahitaez, urteko zinema asmoetan. Erasan handiena **Giza Eskubideen Zinemaldiaren** 18. Edizioa, zeina apirilaren amaierarako baitzegoen aurreikusia, bertan behera uztea izan zen. Hala ere, ekainaren hondarrean hiru euskal film berreskuratu ziren, estreinatzeko zeudenak, Antzoki Zaharreko emanaldi sorta batean.

Nosferatu programak, Tabakaleran, aurreikusi eta bertan behera utzitako ia saio guztiak berriro programatzea lortu zuen, eta halaxe amaitu genuen abenduan **Rainer**

Werner Fassbinder eskainitako atzera begirako mamitsua.

DK-k diruz lagundutako Zinemaldien artean, **Dock of the Bay** dokumental musikalen zinemaldiaren **XIII. edizioa** egin zen; baita **Nazioarteko Itsaspeko 44. Zinemaldia** eta film laburrei eskainitako **Donoskino IV** ere. Beharrezko izan zenean, arduratsu asmatu zuten egokitzen unean uneko egoerara.

Bang Bang Zinemak, edukiera murrizketak eta distantzia soziala zirela eta, Antzoki Zaharreko zinema jarduera hein batean geldiaraztea erabaki zuen, baina izan ziren lankidetzak eta ikus-entzule leialei egindako keinuak ere, hala nola denboraldi itxierako saio bat, ekainaren hondarrean.

Menditour-en Zinema eta Mendia saioek urtarileria aldatu zituzten datak, eta oso harrera ona egin zitzaion; **Zinegoak** jaialdiari, berriz, 2020ko azaroan berrekin zitzaion.

Eta zinemak bere lekua hartu zuen berriro **Korneren**, kultura eta futbola batzen dituen programan.

Antzoki Zaharrak laugarren aldiz hartu zuen **Begiradak** lehiaketaren amaierako gala. Zenbait kolektiboren zinema amateurrari eskainia da lehiaketa hori, eta Ikertzek sustatzen du. **Euskara Zine Aretotara** programak, zeinak, Tinkorekin egindako itun bati esker, milaka ikasle pantaila handira hurbiltzen baititu ikasturtean zehar, onlinera egokitu behar izan zuen apiriletik aurrera, eta formatu horretan ekin zion 2020-21 denboraldiari.

Kresala zineklubak ere bere ohiko saria eman zuen urte hondarrean, film bat proiektatzearekin batera. Oraingoan, Afrikar Zinemaren Jaialdia omenduz..



Cholitas. Menditour.

Cimasub 2020.



Fassbinder.



Keeper. Korner.